



GIPUZKOA



ETA EUROPAR BATASUNA

72. INFORMAZIO BULETINA

> 2012ko Azaroa



GIPUZKOA



NABARMENDU BEHARREKOA

> Gipuzkoako Foru Aldundiak EGEF bidez kofinantzatutako proiektuak aurkeztu ditu Emakundek antolatutako jardunaldian

Emakundek pasa den azaroaren 8an, berdintasuneko teknikariei zuzendutako Gasteizen antolatutako jardunaldian, Gipuzkoako Foru Aldundiak Lurraldean EGEF 2007-2013 partekatutako finantzaketarekin sustatutako proiektuen aurkezpena egin zuen.

EGEF zein EGIF programa operatiboan edukia eta funtzionamendua berdintasun-teknikariei ezagutzera emateaz gain, jardunaldiaren helburua 2013an berdintasun-unitateek eta organo kudeatzaileek elkarlanean egin dezaketek ekintzak antzematea izan da.

Gipuzkoako Foru Aldunditik sustatutako proiektuak ondorengo hauek dira: ikerketa estrategikoa, ekintzailetzaren sustapena, lurralde-berrikuntza, i-gipuzkoa2010, Sarecar, emugil!, energia sustengarria sustatzeko bestelako ekimenak, bidegorriak eta Pasaia Badiako birsorkuntza lanak.

Informazio gehiago

http://www4.gipuzkoa.net/ogasuna/fondoseur1/eus/pre_not.asp

> Europako Batzordeak urrats berriak eman ditu zerga-saihesteen aurka

Europako Batzordeak ekintza-plan bat jarri du abian zerga-saihesteen arazoei aurre egiteko. Plan berri honek estatu-kideei aipatutako lan horietan laguntzeko neurri sorta bat ezarri du.

Plan horren harira, Batzordeak bi gomendio ere egin ditu estatu-kideak arazo larrienen aurrean neurri azkarrak eta koordinatuak hartzera animatzeko: lehenak Europar Batasunak paradisu fiskalen aurka indar egiteko jarrera hartzea ezartzen du. Europar Batasuneko kide ez diren herrialdeak Batasunean indarrean diren gobernantza-arauak aplikatzearen beharraz konbentzitzeko neurriak ere ezarriko dira.

Bigarren gomendioa plangintza fiskal erasokorrari buruzkoa da. Hainbat bide proposatzen dituzte enpresa batzuek bidezko moduan dagokiena ordaintzea saihesteko baliatzen dituzten teknizismoak eta hutsunak zuzentzeko.

Onartu duten ekintza-planak aurrez ikusitako gainerako ekimenak ondorengo hauek dira, besteak beste: zergadunaren kode bat sortzea, Europar Batasunaren Identifikazio Fiskaleko Zenbaki bat sortzea, Europako direktiba garrantzitsuenek gehiegikerien aurka egiteko ezartzen dituzten xedapenak berrikustea eta diru-fluxuei jarraipena egiteko ildo komunak ezartzea.

Informazio gehiago

http://ec.europa.eu/taxation_customs/taxation/tax_fraud_evasion/index_en.htm



KOHESIO-POLITIKA

> Eskualdeetako Lantaldeak eta Europako Inbertsio Bankuak inbertsio publiko-pribatua bultzatuz eskualdeetako hazkundera sustatzea adostu dute

Eskualdeetako Lantaldearen presidente Ramón Luis Valcárcelek eta Europako Inbertsio Bankuko Werner Hoyer presidenteak 2014-2020 aldiko egitura-funtsen finantza-programaren lanerako programak diseinatzeko eta sustatzeko konpromisoa hartzea adostu dute. Bi erakundeek ustez, beharrezkoa da Europan, tokiko eta eskualdeetako agintariei Europako Inbertsio Bankuaren baliabideak hobeto erabiltzeko aukera emango dieten modalitate berrietan aurrerapausoak ematea.

Hainbat konpromiso hartu dituzte; hala nola tokiko eta eskualdeetako agintarientzako Europar Batasunak eskaintzen dituen finantzaketa-aukerei buruzko sentsibilizazio-kanpaina egitea eta hazkundera iraunkorra lortzeko eta aldi batean enplegua sortzeko finantzaketa publiko-pribatuko sinergiak sustatzea.

Informazio gehiago

<http://cor.europa.eu/en/news/pr/Pages/cor-eib-investment-regional-growth.aspx>

> 2013, Herritarren Europako Urtea

2013an Europar Batasuneko herritarren 20. urteurrena ospatuko dugu. Hori dela-eta, Europako Batzordeak 2013 Herritarren Europako Urte izendatzea erabaki du.

Hortaz, 2013an, Europako erakundeek, gobernu nazionalekin batera, hainbat ekimen jarriko dituzte abian partaidetzan oinarritutako demokraziari eta Europako herritarren zereginari buruz.

Informazio gehiago

http://ec.europa.eu/spain/actualidad-y-prensa/noticias/educacion-formacion-y-juventud/ano-ciudadanos_es.htm



Gipuzkoako
Foru Aldundia
Ogasun eta Finantza
Departamentua
Departamento de
Hacienda y Finanzas



ETA EUROPAR BATASUNA

> 2012ko Azaroa

EUROPA 2020 ESTRATEGIA

- > Eskualdeetako Lantaldeak Europako eskualdeetako enpleguari, hezkuntzari eta trebakuntzari buruzko politiken inguruko inkesta bat jarri du abian

Europa 2020 Estrategiaren “Prestakuntza eta enplegu berrien agenda” ekimen bereziaren harira, Europako Eskualdeetako Lantaldeen Batzordeak inkesta bat jarri du abian estrategia hau Europako eskualdeetan eta hirietan zer eragin izaten ari den ebaluatzeko.

Inkestak hainbat gai jorratzen ditu; esaterako, flexiguritatea, prestakuntza indartzea, enpleguaren sorrera eta lan-eskariak sustatzeko eskualdeko eta tokiko politika eta Europako funtsak.

“Prestakuntza eta enplegu berrien agenda” izeneko ekimen berezia Europa 2020 Estrategiari enpleguaren, hezkuntzaren eta pobrezia-aren aurkako borrokaren alorrean helburu nagusiak lortzen laguntzeko diseinatu zuten. Ekimenaren helburua lan-merkatuak modernizatzeke baldintzak sortzea da, horrela, enplegua areagotzeko eta oraingo gizarte-ereduen jarraipena bermatzeko. Horretarako, beharrezko jo dugu pertsonak prestakuntza berrien bidez gaitzea, horrela, oraingo eta etorkizuneko populazioa baldintza berrietara eta izan daitezkeen karrera-aldaketetara egokitzeko, langabezia murrizteko eta laneko produktibitatea areagotzeko.

Informazio gehiago

<http://portal.cor.europa.eu/europe2020/Knowledge/Pages/welcome.aspx>

- > Europako Batzordeak gazteen enplegua sustatzeko neurri sorta bat jarri nahi du abian

Europako Batzordeak neurri sorta bat proposatu du estatu-kideei Europako gazteen langabeziaren eta gizarte-bazterketaren inguruko arazoak konpontzen laguntzeko.

Proposatutako Gomendioak hainbat gauza eskatzen dizkie estatu-kideei: alderdi interesdunekin harremanetan jartzea; enplegu-zerbitzuek garaiz esku-hartzea bermatzea; lan-munduratzeko laguntza-neurriak hartzea; horretarako, Europako Gizarte Funtsa eta beste egitura-funts batzuk erabiltzea eta gazteen bermerako sistemak etengabe ebaluatzea eta hobetzea. Eta hori guztia ahalik eta azkarren.

Batzordeak, halaber, finantzaketa eskainiz estatu-kideekin lankidetzan aritzeko konpromisoa hartu du, jardunbide egokien trukea sustatuz eta Gazteen bermerako sistemak ezartzeari jarraipena eginez.

Informazio gehiago

<http://ec.europa.eu/social/BlobServlet?docId=9223&langId=en>



> Benetako Ekonomia eta Diru Batasuna lortzeko neurri berriak

Europako Kontseilu presidente Herman Van Rompuyk Ekonomia eta Diru Batasunari buruzko txostenaren bertsio berria aurkeztu du Batzordeko eta Europako Banku Zentraleko eta Eurotaldeko presidenteeekin batera.

Txostenean Ekonomia eta Diru Batasunaren egonkortasuna eta osotasuna ziurtatzeko hainbat ekintza proposatu dituzte eta estatu-kideei proposatutako ibilbide-orria aplikatzeko konpromiso politikoa eskatu zaie.

Proposatutako neurrien artean da 2014tik aurrera eurogunerako aurrekontu bat sortzea langabezia eta herrialdeek dituzten beste arazo batzuen konponbidea finantzatzeko. Herrialde horiek, trukean, aldaketak egin beharko dituzte egituretan. Banka zuzenean birkapitalizatzeko eragiketa- edo lege-esparrua 2013ko martxorako prest izatea ere sustatzen du.

Informazio gehiago

http://www.consilium.europa.eu/uedocs/cms_Data/docs/pressdata/en/ec/134069.pdf



Gipuzkoako
Foru Aldundia
Ogasun eta Finantza
Departamentua
Departamento de
Hacienda y Finanzas



ETA EUROPAR BATASUNA

> 2012ko Azaroa

DOKUMENTU INTERESGARRIAK

- > Euroguneko enpresa txiek eta ertainek finantzaketara duten irisgarritasuna. 2012ko apirila-iraila (Europako Banku Zentrala)

Euroguneko enpresa txiki eta ertainei bankuko maileguak emateko baldintzei buruz Europako Banku Zentralak eginiko inkestaren emaitzak. Txostenak enpresentzako, kontsumitzaileentzako eta familientzako banku-kredituen jokabideari buruzko informazioa ematen du.

Edizio honetan lehen aldiz izan da oraingo finantza-egoera xehekako eta handizkako kreditua eskuratzeari sortzen ari zaion eraginari buruzko galdera bat. Horrez gain, izan dira zor subiranoaren krisiak bankuen finantza-baldintzei eta kreditu-estandarrei eragiten dien moduari buruzko galderak ere.

Informazio gehiago

<http://www.ecb.europa.eu/stats/money/surveys/sme/html/index.en.html>

- > Europako Kontuen Auzitegiaren urteko txostena

Europar Batasuneko Kontuen Auzitegiak, Europar Batasunaren fiskalizazioaz eta kontuak kontrolatzeaz arduratzen den organoak alegia, argitaratu du urteko txostena. Txosten horretan, Auzitegiak adierazi du 2011n Batasunaren gastuarentzat kuantifikatutako errore globalaren tasak egonkor eutsi diola % 4tik beherako mailari.

Europar Batasuneko kontabilitateari dagokionez, Auzitegiak ados dagoela adierazi du bosgarren urtez jarraian..

Informazio gehiago

http://europa.eu/rapid/press-release_MEMO-12-833_en.htm



> Web-ataria: Europak Frantziarekin duen konpromisoa (L'Europe s'engage en France)

Frantziako gobernuak argitaratzen duen web-ataria da. Bertan, Eskualde Garapeneko Europako Funtsaren, Europako Gizarte Funtsaren, Landa Garapeneko Europako Nekazaritza Funtsaren eta Arrantzaren Europako Funtsaren harira Europako Batzordeak Frantzian egiten dituen inbertsioei buruzko informazioa argitaratzen dute.

Eskualde bakoitzean finantzaketa erabiltzen den moduari buruzko informazioa, elkarrekin finantzatutako proiektuen adibideak eta onuradun izan daitezkeenentzako aholkuak biltzen ditu atariak.

Informazio gehiago

<http://en.europe-en-france.gouv.fr/>

> Espezializazio adimendunaren bidez hazkunde adimenduna eta iraunkorra uztartzeko gida

Eskualdeen Garapenerako Europako Funtsa kudeatzen duten agintariei zuzenduta dago gida eta alternatiba zehatzak eskaintzen ditu hazkunde adimenduna eta iraunkorra uztartzeko. Horretarako, askotariko jardunbide egokiak hartzen ditu abiapuntutzat ekoberrikuntzan, bioekonomian eta ekosistemetan, energia berriztagarrietan edo klima aldaketarako egokitzapenean, gehienak Europar Batasunaren eskualde-politikarekin batera finantzatuak.

Informazio gehiago

http://ec.europa.eu/regional_policy/sources/docgener/presenta/green_growth/greengrowth.pdf

> Ustelkeriaren pertzepzio-indizea, 2012

Gardentasunaren aldeko nazioarteko erakundeak munduko ustelkeriaren pertzepzioari buruzko urteko txostena argitaratu du. Txostenak 176 herrialderi buruzko informazioa bildu du eta ondorioztatu du euroguneko krisiak gehien eragin dien Europako herrialdeak ustelkeriaren pertzepzioa gehien igo zaienen artean daudela.

Informazio gehiago

http://files.transparency.org/content/download/537/2229/file/2012_CPI_brochure_EN.pdf